

AURRERA EGITEKO ERREFERENTZIA ETA ESTIMULU GISA IDENTIFI- KATUTAKO HELBURUAK


Hiru urtean, 1.000 egunean, elkarrekin eta elkarlanean, zergatik ez dugu lortuko...?

- **Fruta eta barazkiak egunero jaten dituzten HAURREN ETA GAZTEEN⁴ indizea %20 handitzea.** Alegia, gazteen %60k fruta eta %22k barazkiak egunero kontsumitzea.
- **Gatz kontsumoa %20 jaitea,** eguneko 9,6 gramotik 7,5 gramora.
- **Euskadiko herritarren elikadura osasungarriaren alde lan egiten duten agente eta ekimenen %50ek sarean** eta gutxienez Euskadiko Elikadura Osasungarriako Ekimenak osatzen duten ekin-tzetakoren baten ildotik lan egitea.

- **Azukre libreen kontsumoa %20 jaitea,** eguneko 100 gramotik 80 gramora.

Proposatutako helburuak ez dira lorrezinak. Izan ere, ikuspegi errealista batetik hautatu dira, kolaborazioari esker helburu horiek lortzea gure esku dagoela jakinda, elikadura osasungarriaren garrantzia eta balioaren jakitun garen **guztionean, potentzian eta inplikazioan sinesten baitugu.** Arazo eta kezka **gehien eragiten dituen biztanleria-taldeetako baten (gazteen) joera eteteko eta aldatzeko** gai izatea oso ekintza eraginkorrak garatzeko gai izatearen pareko da. Eta politika murriztaileei leku egin beharrean, **modu positiboan formulatutako etorkizunerako ikuspegi batetik**

eraiki behar da eraginkortasun hori: gai bagara fruta eta barazki kontsumoa nazioartean onartutako gomendioetara hurbiltzeko, azukre eta gantz erantsien kontsumo txikiagoa eragiten ariko gara, aldi berean.



HELBURU KOLEKTIBOAK



HELBURU ESTIMULAGARRIAK

4. Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria 2.171.886 pertsonakoa da. Hauetatik %17,4k 19 urte baino gutxiago dituzte. Eustat. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Biztanleria 2016.